



Mundua kalera atera zen atentatua salatzeko. GAUR8

«CHARLIE HEBDO» JOPUNTUAN

Urtarrilaren 7an, “Charlie Hebdo” aldizkariko zuzendaritza bilera bat egi-
ten ari zela, burua estalita eta beltzez jantzita zihoazen bi lagun erredak-
ziora sartu ziren kalaxnikov arma automatikoak eskuan. Hamabi lagun hil
zituzten, hamar kazetari eta bi polizia. Mundua kalera atera zen.

LURRIKARAK NEPAL ASTINDU ZUENEKOA



Nepalgo herritarrei kostatu egin behar zaie lurrikarari buelta ematea. GAUR8

Apirilaren 25ean 7,9 gradu-
ko lurrikara bortitzak astin-
du zuen Nepal. Azpiegiturak
guztiz suntsitu eta 8.000
hildakotik gora eragin zi-
tuen lurrikarak. Astindu la-
tza pobrezia aurretik ere
gogor jipoitutako herrialde-
arentzat. Hilabete igaro ez
zenean, beste lurrikara ba-
tek, Richter eskalan 7,3 gra-
dukoa, kolpatu zuen berriro
Nepal. Katmandun ez ezik,
Indiako New Delhin eta
Bangladeshko Dhakan ere
atzeman zuten. Lurrikarak
Nepaleko azpiegiturak era-
bat suntsitu zituen. Geroztik,
bizi-baldintza gogorre-
tan ari dira aurrera egiten
hango herritarrak, mendial-
deko herrixketan bereziki.

KOLONBIAKO GATAZKA ETA BIKTIMAK

Bake prozesuaren baitan, Ko-
lonbiako Gobernuak eta FARC
Kolonbiako Indar Armatu Iraul-
tzaileak biktimen inguruko
puntua adostu eta aurkeztu
zuten Habanan. Humberto De
la Calle gobernuaren negozia-
tzaileak eta Ivan Marquez FAR-
Ceko ordezkariak sinatu zuten
70 orriko agiria. Egia, justizia,
erreparazioa eta gertatutako
ez errepikatzea adostu zuten
bi aldeek.



De la Calle eta Marquez. Adalberto ROQUE | AFP

MUNDUARI ARNASA ETEN ZION HEGAZKIN ISTRIPUA

Martxoaren 24an Bartzelona eta Düssel-
dorf arteko ibilbidea egiten zuen Ger-
manwings konpainiako hegazkin batek
Alpeen kontra jo zuen bortitz, Estatu
frantseseko lurretan. 144 bidaiari eta tri-
pulazioko sei kide zeramatzan hegazki-
netik ez zen inor bizirik atera. Istripua
gertatu eta bi egunera, aurpegi ilunez
eta erabat lur jota, kasuaz arduratzen
zen fiskal frantsesak espero gabeko be-
rria eman zuen komunikabideen aurrean: Andreas Lubitz 27 urteko kopilotuak a-
naren inguruko informazioak eta zeresan handia eman zuen auziak. Gainera, istr



Germanwings konpainiako hegazkina zai